

## **ARAMAIO / Irakurketa kluba osatu guran, haur eta gurasoek batera irakur dezaten**

Bularretik Mintzora kampainaren barruan irakurketa klubak osatu guran dabilta Aramaion ere. Bularretik Mintzora kampaina sistematizatu bat izateko bokazioz jaio zen 2007ko abenduan. Haurren guraso eta hezitzaleei zuzenduta dago eta helburu nagusia da 0-6 adin tarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaleekin, euren ingurune naturalean. Hau da, antolatzaileen asmoa da haurrek eta gurasoek denbora tarte bat hartzea liburuekin gozatzeko.

Saio horietan gurasoek eta haurrek ekintza batzuk burutzen dituzte, hala nola, irakurketa ozenak, liburuak aurkezpenak, irakurritako liburuak gaineko gomendioak eta beste hainbat ekintza, liburuekin gozatzeko eta idatzizko literaturaren curriculum bat pixkanaka osatzen joateko. Hainbat helburu zehatz dituzte: irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, guraso eta haurren arteko irakurketa giroa sortzea, gurasoak ozenki irakurtzen trebatzea eta haurrek giro lasai baten goza dezaten lortzea, besteak beste.

Ekimena hilaren 18an helduko da Aramaiora. 3 eta 6 urte arteko haurrendako eta horien gurasoendako antolatu dituzte, eta liburutegian elkartuko dira. Beste bi saio ere egingo dituzte, abenduaren 16an eta urtarrilaren 20an. Izena eman gura duenak liburutegira jo beharko du eta bertan bete beharko du izen-estate fitxa.